



8. ORDENANTZA UDALAREN TAXIAK

I. IZENBURUA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren helburua.

Ordenantza honen helburua da kontagailu-taximetroz hornituta dauden automobiletako - aurrerantzean, taxi-bidaiak garraiatzeko zerbitzuak arautzea. Beroriek Garai udalerrian ibili behar dira soilik.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, zera ulertu behar da:

- a) Taxi-zerbitzuak: bederatzi bidaiarira arteko lekua duten ibilgailuekin garraiatzea, gidatzen duen pertsona ere barruan legokeela. Era berean, zerbitzu horiek ordaindu beharko lirateke tarifa izeneko prezioa ordainduz.
- b) Hiriko taxi-zerbitzuak: Garai udalerrin barruan soilik dabilzan zerbitzuak.
- c) Hiriz kanpoko taxi-zerbitzuak: b) letraren definizioan sartzen ez direnak.

ORDENANZA NUMERO 8, MUNICIPAL DEL TAXI

TÍTULO I NORMAS GENERALES

Artículo 1. Objeto de la Ordenanza.

El objeto de la presente Ordenanza es la regulación de los servicios de transporte público de viajeros en automóviles de turismo-taxi, que discurren íntegramente por el término municipal de Garai.

Artículo 2 . Definiciones .

A los efectos de esta Ordenanza, se entiende por:

- a) Servicios de taxi: el transporte de viajeros con vehículos de hasta nueve plazas de capacidad, incluida la persona que conduce; y que se retribuye mediante el pago de un precio, denominado tarifa.
- b) Servicios urbanos de taxi: los servicios que discurren íntegramente por el término municipal de Garai.
- c) Servicios interurbanos de taxi: los no comprendidos en la definición de la letra b).



II. IZENBURUA LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

3. artikulua. Garraiatzeko lizentzia eta baimena.

1. Lizentzia titulu juridikoa da, Ordenantza honek aipaturiko hiriko zerbitzuak eman ahal izateko titularrari gaitasuna ematen diona.
2. Hiriz kanpoko zerbitzuak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako garraiatzeko baimena (garraio-txartela) duten udal lizentziadun titularrek soilik eman ditzakete.
3. Lizentzia eta baimen bakoitzak titular bakarra, gidari bakarra eta ibilgailu jakin bat izango ditu; hori horrela, ezinezkoa izango da pertsona bera lizentzia eta baimen bat baino gehiagoren titular izatea.

4. artikulua. Lizentziak ematea.

Hiriko taxi-zerbitzua emateko lizentzia sortu berriak indarrean dauden eraudietan ezarritako prozeduren arabera emango dira, lehiaketa bidez; gainera, nolanahi ere, lehia askea eta publizitateko baldintzak errespetatuko dira.

5. artikulua. Lizentzia kopurua.

Inor ezin izango da lizentzia bat baino gehiagoren titularra izan.

TÍTULO II DE LAS LICENCIAS Y AUTORIZACIONES

Artículo 3 . Licencia y autorización de transporte .

1. La licencia es el título jurídico que habilita a su titular para la prestación de los servicios urbanos a que se refiere esta Ordenanza.
2. Únicamente podrán prestar servicios interurbanos aquellos titulares de licencia municipal que estén en posesión de la correspondiente autorización de transporte (tarjeta de transporte), otorgada por la Excma. Diputación Foral de Bizkaia.
3. Cada licencia y autorización tendrá un solo titular, un solo conductor y amparará a un solo y determinado vehículo, no pudiendo una misma persona ser titular de más de una licencia y autorización.

Artículo 4 . Concesión de licencias .

Las licencias de nueva creación para la prestación del servicio urbano de taxi se otorgarán de conformidad con los procedimientos establecidos por la normativa vigente, mediante concurso; respetándose, en todo caso, los requisitos de libre concurrencia y publicidad.

Artículo 5 . Número de licencias.

Nadie podrá ser titular de más de una licencia.



6. artikulua. Bateragarritasuna.

1. Lizentziaren titularrak berak ustiatu beharko du lizentzia, baina bateragarria izango da beste edozein soldatapeko jarduerarekin.
2. Salbuespen moduan, eta dagokion Arloaren iritziz aski egiaztatutako arrazoiak daudenean (alarguntza, titularraren elbarritasuna, lanerako ezintasun iragankorra edo zerbitzuaren prestazioa norberak ematea galarazten duten eta gerora agertutako bestelako gorabeherak), soldatapeko gidaria kontratatu ahal izango da lizentzia ustiatzeko, Garaiko Udalak emandako udal gidari-baimena badu.

7. artikulua. Soldatapeko gidariak.

1. Soldatapeko gidariak Garaiko Udalak lizentzien titularrei eskatzen dizkien lanbide-gaitasun baldintza berberak bete beharko dituzte. Aldi berean, ezin izango dira egon Ordenantza honek eta hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak aipatzen dituen ezintasun edo debekatu arrazoietan.
2. Lizentzia batek ere ezin izango du gidari bat baino gehiago atxikita eduki, Udalak baimendu duenean izan ezik, aurreikusitako legezko edo araubidezko kasuetan betiere.

Artículo 6. Compatibilidad.

1. El titular de la licencia está obligado a explotarla personalmente, siendo compatible con cualquier otra actividad remunerada.
2. Excepcionalmente, y cuando, a juicio del Área correspondiente, concurren motivos suficientemente acreditados (viudedad, invalidez del titular, incapacidad laboral transitoria u otras circunstancias sobrevenidas que impidan la prestación personal del servicio), la licencia podrá ser explotada mediante la contratación de un conductor asalariado, provisto del permiso municipal de conductor, extendido por el Ayuntamiento de Garai.

Artículo 7 . Conductores asalariados.

1. Los conductores asalariados reunirán idénticos requisitos de aptitud profesional a los exigidos por el Ayuntamiento de Garai para los titulares de licencias, y no deberán estar incursos en ninguna de las causas de incapacidad o prohibiciones a que se refieren la presente Ordenanza y la Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo.
2. Ninguna licencia podrá tener adscrito más de un conductor, salvo autorización municipal, en los casos legal o reglamentariamente previstos.



8. artikulua. Lizentzia lortzeko administrazio eskakizunak.

Lizentziak lortzeko beharrezkoa izango da Udalari honako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea:

1. Pertsona fisikoa dela; pertsona bat baino gehiagoz osaturiko taldeei ez zaie lizentziarik emango.
2. Beste lizentziarik ez duela.
3. Indarrean dagoen legediak ezarritako zerga, lan, gizarte edo administrazio arloko betebeharrak betetzen dituela.
4. Lizentziarekin lotuta dagoen ibilgailuak ordenantza honetako horri buruzko kapituluan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu, eta lizentzia eskatutakoan ezingo ditu bi urte baino gehiago izan lehenbizikoz matrikulatu zenetik, matrikulatu zen herrialdea edozein izanda ere.
5. Egiten duten garraio-zerbitzuaren ondorioz erabiltzaileei kalterik eginez gero ere, kalte guzti horietarako erantzukizun zibileko aseguruua duela. Aseguru poliza ituntzea ere nahitaezkoa izango da, legeria bereziaren arabera estali behar diren gainontzeko arrisku guztiak estaltzeko.

9.artikulua. Eskatutako agiriak.

1. Lizentzia lortzeko, beharrezkoa izango da Udaleko Erregistro Nagusian dagokion eskaria egitea. Horretarako, agiri hauen originalak edo fotokopia konpultsatuak eraman beharko dira:

Artículo 8. Requisitos administrativos para la obtención de licencias.

Para la obtención de la licencia será necesario acreditar ante este Ayuntamiento el cumplimiento de los siguientes requisitos:

1. Ser persona física, no pudiendo otorgarse la licencia de forma conjunta a más de una persona.
2. No ser titular de otra licencia.
3. Cumplir las obligaciones de carácter fiscal, laboral, social u administrativo exigidas por la legislación vigente.
4. El vehículo al que haya de referirse la licencia habrá de cumplir los requisitos previstos en el capítulo relativo al mismo de la presente ordenanza y en el momento en que se solicite la licencia no podrá tener una antigüedad superior a dos años, contados desde su primera matriculación, cualquiera que sea el país en que ésta se haya producido.
5. Tener cubierta la responsabilidad civil por cuantos daños y perjuicios puedan causar a los usuarios con ocasión del servicio de transporte que realicen. Será también obligatorio concertar la póliza de seguros que cubrirá todos los demás riesgos a los que obliga la legislación específica.

Artículo 9. Documentación requerida.

1. Para la obtención de la licencia, será necesaria la presentación ante en el Registros general del Ayuntamiento de la correspondiente solicitud, acompañada de original o fotocopia compulsada de los siguientes documentos:



- 1.1. Eskatzailearen nortasun agiri nazionala edo, atzerrikoa baldin bada, bere herrialdean antzeko balioa duen nortasun agiria edo pasaporte, baita dagokion identifikazio fiskaleko zenbakia duela kreditatzen duen agiria ere.
 - 1.2. Eskabidea aurkeztu aurretikoko hamabi hilabeteko epean ordaindu beharreko hainbat zerga (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren Zerga) ordaindu izanaren egiaztagiriak. Gizarte Segurantzaren dagokion Erregimenean izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria ere aurkeztu beharko da. Atal honetan aurreikusitako agiri guztiak dagokion Administrazioak eman edo baimendu beharko ditu kasu bakoitzean.
 - 1.3. Lizentzian agertuko den ibilgailuaren zirkulazioko baimena, eskatzailearen izenean, eta ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartela.
 - 1.4. Ibilgailuen Azterketa Teknikoko aztertokiaren ziurtagiria, legezko azterketa indarrean duela adierazten duena.
 - 1.5. Garraio-lanean ari dela kalterik eraginez gero, horiek ordaintzeko erantzukizun zibila estalita duela eta dagokion aseguru poliza baduela adierazten duen frogagiria.
- 1.1.- Documento Nacional de Identidad del solicitante, o cuando éste fuera extranjero, documento de identificación que surta efectos equivalentes en su país de origen o pasaporte, así como, en todo caso, acreditación de encontrarse en posesión del correspondiente número de identificación fiscal.
 - 1.2.- Documentos acreditativos de estar al corriente de las obligaciones fiscales, tales como el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el Impuesto sobre el Valor Añadido cuyo plazo reglamentario de presentación hubiese vencido durante los doce meses inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud, así como la documentación acreditativa de la afiliación en situación de alta en el Régimen de la Seguridad Social que corresponda. La documentación prevista en el presente apartado deberá ser expedida o autorizada por la Administración competente, en cada caso.
 - 1.3.- Permiso de Circulación del vehículo al que vaya a referirse la licencia, a nombre del solicitante, y Tarjeta de Inspección Técnica del mismo.
 - 1.4.- Certificación de la estación de Inspección Técnica de Vehículos en la que conste hallarse vigente el reconocimiento periódico legal.
 - 1.5.- Justificante de tener cubierta la responsabilidad civil por los daños que cause con ocasión del transporte y estar al corriente de la correspondiente póliza de seguro.



1.6. Lanbidea gauzatzeko beharrezko ziurtagiri eta baimenak, hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko ekainaren 29ko 2/2000 Legean eta bere araudian aurreikusitakoaren arabera.

1.6.- Certificados y permisos necesarios para el ejercicio de la profesión, de acuerdo con lo previsto en la Ley 2/2000, de 29 de junio y el Reglamento de la Ley de Transporte público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo.

10. artikulua. Lizentzien indarreko epea.

1. Lizentziak denbora mugarik gabe emango dira, baina lizentziak emateko eta kentzeko Udalak egin ditzakeen ikuskaritzetarako aurreikusitako ondorioek aldatu egin dezakete hori.
2. Lizentzia eta baimenak 18. artikuluan ezarritakoaren arabera ikusonetsi beharko dira.

Artículo 10. Plazo de vigencia de las licencias.

1. Las licencias se otorgarán por tiempo indefinido, si bien dicho plazo quedará condicionado a lo establecido respecto de las consecuencias previstas para la inspección que pueden realizar el Ayuntamiento para su otorgamiento y revocación.
2. Las licencias y autorizaciones han de visarse de conformidad con lo establecido en el artículo 18.

11. artikulua. Lizentziak etetea.

Istripua edo matxura izanez gero, gaixotuz gero edo zerbitzua eskaintzen jarraitzea ezinezkoa egiten duen beste edozer gertatuz gero, Udalak lizentziaren eraginkortasuna eten egingo du aipatutako egoerak irauten duen bitartean.

Artículo 11.- Suspensión de las licencias.

En el supuesto de accidente o avería, enfermedad, o en general cualquier circunstancia que impida o haga imposible la continuidad en la prestación del servicio, el Ayuntamiento suspenderá la efectividad de la licencia durante el tiempo que duren las circunstancias señaladas.

12. artikulua. Etendurarako mugak.

Gidariaren gaixotasunak, titularra zein soldatapekoa izan, edo gidariari zerbitzua ematen jarraitzea eragozten dion egoerak hiru hilabete baino gehiagoz iraungo balute, lizentzia kendu egin ahal

Artículo 12.- Límites a la suspensión.

La enfermedad del conductor, sea titular o asalariado, o la imposibilidad de éste de continuar la prestación del servicio por un plazo superior a tres meses, podrá motivar la revocación, salvo que el



izango litzake, lizentziaren titularrak, hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudian aurreikusitako balizkoen barruan beste gidari baten zerbitzuak kontratatzen dituenen salbu, zerbitzuaren jarraikotasuna bermatuz.

titular de la licencia contrate, los servicios de un conductor dentro de los supuestos previstos en el Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo, de forma que asegure la continuidad del servicio.

13. artikulua.- Lizentziaren baldintzak egiaztatzea.

1. Udalak nahi duen guztian egiaztatu ahal izango du titularrak lizentzia egoki betetzen al duen eta aplikatu daitekeen araudian ezarritako baldintzak betetzen al diren.
2. Horri dagokionez, modu berean, egoki irizitako egiaztagiria bildu ahal izango ditu.

Artículo 13.- Comprobación de las condiciones de la licencia.

1. El Ayuntamiento, con relación a las licencias, podrá en todo momento comprobar el cumplimiento adecuado por parte del titular, de las condiciones establecidas en la normativa aplicable.
2. En este sentido, podrá recabar del mismo la documentación acreditativa que estime pertinente.

14. artikulua.- Lizentziak iraungitzea.

1. Lizentziak arrazoi hauengatik iraungiko dira:
 - a) Titularrak uko eginez gero. Berau eman zuen erakundearekin adostuko da iraungitzea, dagokion prozedura burutu ondoren.
 - b) Kenduz gero.
 - c) Titularra hilez gero, Ordenantza honetako 17. artikuluan aurreikusitako eskualdatzerik egin ezean.
 - d) Lizentziak deuseztatuz gero.

Artículo 14.- Extinción de las licencias.

1. Las licencias se extinguirán por las siguientes causas:
 - a) Renuncia de su titular. La extinción se acordará por el órgano que la otorgó, previa la tramitación del correspondiente procedimiento.
 - b) Revocación.
 - c) Fallecimiento de su titular, salvo los supuestos de transmisibilidad previstos en el artículo 17 de la presente Ordenanza.
 - d) Anulación de las licencias.



2. Gaikuntza-tituluetakoren bat iraungitzeak, udal lizentziak edo hiriz kanpoko garraiorako baimena, bestea iraungitzea ekarriko luke, hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudiko 12. artikuluko 3. eta 4. ataletan aurreikusitako kasuan salbu. Horretarako, udal lizentzia iraungiko balitz, Udalak eskudun den organoari jakinaraziko lizkioke iraungitako lizentziak. Era berean, hiriz kanpoko garraiorako baimena iraungiko balitz, baimenen inguruko eskumena duen organoak iraungitako baimenen berri emango lioke Udalari. Kasu bietan, jakinarazpena iraungipena gertatu eta hilabeteko epean gauzatuko da.
2. La extinción de uno de los títulos habilitantes, tanto licencia municipal como autorización de transporte interurbano, dará lugar a la extinción asimismo, del otro, con la salvedad prevista en los apartados 3 y 4 del artículo 12 del Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo. Para ello, en el caso de extinción de la licencia municipal, el Ayuntamiento comunicará al órgano competente las licencias extinguidas. Asimismo, en el caso de extinción de la autorización de transporte interurbano, el órgano competente en materia de autorizaciones comunicará al Ayuntamiento las autorizaciones extinguidas. En ambos casos la comunicación se realizará en el plazo de un mes desde que tuviere lugar la extinción.

15. artikulua.- Lizentzia kentzea.

1. Udalak, honako kasuetako bat gertatzen denean, lizentziak kendu ahal izango ditu:
 - a) Ordenantza honetako 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aipatutako tituluaren titular izateko Legean aurreikusitako eskakizunak ez betetzeagatik.
 - b) Gaitzen duen titulua aldizka ikusonetsi behar bada, urtebetean horrelakorik egin gabe egoteagatik. Urtebete hori ikusonesteko unea zabaltzen denetik hasiko da kontatzen, baina ez da titulua kenduko titularraren errua izan ez bada. Horretarako izapidetutako espedienteen gaitzen duen titulua aldi baterako indarririk gabe utzi ahal izango da, zuhurtziarako neurri gisa.

Artículo 15.- Revocación.

1. El Ayuntamiento podrá acordar la revocación de las licencias en alguno de los siguientes supuestos:
 - a) Por incumplimiento de los requisitos previstos en la Ley para ser titular del referido título, de conformidad con lo previsto en el artículo 8 de la presente Ordenanza.
 - b) En el supuesto en que el título habilitante haya de ser visado periódicamente, por el transcurso de un año sin llevarlo a cabo a contar desde el momento que se inicia el plazo para solicitarlo, excepto cuando la falta de solicitud no sea imputable al titular de los mismos. En el expediente tramitado al efecto se podrá dictar como medida cautelar la suspensión del título habilitante.



- c) Arau-hauste larri-larriak egin badira behin eta berriro edo ezarritako zigorra bete ez bada. Behin eta berriro gertatu dela esaten da arau-hauste larri-larri batengatik behin betiko ebazpen bidez zigorra jaso duen batek hamabi hilabete baino lehenago berriro beste arau-hauste larri-larri bat egiten badu.
2. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da prozedura.
3. Kendutako lizentzia baten titularrak ezingo du berriro eskatu, kendu zaionetik hamar urte igaro arte.
- c) Por la comisión reiterada de infracciones muy graves o con quebranto de la sanción impuesta. A estos efectos, se entiende que existe reiteración, cuando en los doce meses anteriores a su comisión el responsable de la misma haya sido objeto de sanción mediante resolución definitiva por infracción tipificada como muy grave.
2. El procedimiento se tramitará de conformidad con lo previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
3. El titular de una licencia que haya sido revocada no podrá presentar una nueva solicitud, a menos que hayan transcurrido diez años desde la fecha de revocación.

16. artikulua.- Lizentziak deuseztatzea.

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako administrazio egintzen deuseztasun eta deuseztagarritasunaren araubide nagusia aplikatu dakieke lizentziak deuseztatzeari.

17. artikulua.- Lizentziak eskualdatzea.

1. Taxi lizentziak **ezin izango dira eskualdatu**, honako kasuetan izan ezik:
- a) Titularra hil delako, alargunari edo legezko oinordekoei.
- b) Erretiratuz gero.

Artículo 16.- Anulación de las licencias.

Será de aplicación a la anulación de las licencias el régimen general de nulidad y anulabilidad de los actos administrativos previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 17.- Transmisión de las licencias.

1. Las licencias de autotaxi serán **intransmisibles**, salvo en los siguientes supuestos:
- a) Por fallecimiento de su titular, a favor de su cónyuge viudo, o los herederos legítimos.
- b) En caso de jubilación.



- c) c) Aurreko a) atalean aipaturiko alargunak edo legezko oinordekoek lizentzia hori ezin dutelako ustiatu jarduera bakar eta eskusibo bezala.
- d) Lizentziaren titularra ezinduta geratu delako lanbide horretan jarduteko, gaixotasunagatik, istripuagatik edo ezinbestekotzat jo daitekeen bestelako arazoiren batengatik.
- e) Lizentziaren titularrak 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna duenean. Honek eskualdatu ahal izango du, Udalak hala baimendu ondoren. Kasu horretan, ezingo du beste lizentzia bat eskuratu Garai udalerraren barruan, hamar urteko epean, hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudian ezarritako moduetatik inolako moduetan.
2. Eskualdaketa dagokion Arloak baimenduko du, horretarako egindako eskabidearen ondoren, eta soil-soilik emango da eskuratzailerak berorren titularra izateko Ordenantza honetan eta aplikagarri diren gainerako araudietan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen.
3. Hiru hilabeteko epea igaro eta beren-beregizko ebazpena jakinarazi ez bada, lizentzia eskualdatzeko eskatu duenak gaitziritzi egin dela ulertu ahal izango du administrazioaren isiltasunagatik, berori Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.4 artikuluan aurreikusitako eran, Udalak eman behar duen ebazpenari kalterik izan ezean.
- c) Cuando el cónyuge viudo o los herederos a los que se refiere el apartado a) no puedan explotar la licencia como actividad única y exclusiva.
- d) Cuando el titular de la licencia quedare imposibilitado para el ejercicio profesional, por motivos de enfermedad, accidente u otros que, pudieren calificarse de fuerza mayor.
- e) Cuando el titular de la licencia tenga antigüedad superior a 10 años. Éste podrá transmitirla, previa autorización del Ayuntamiento, no pudiendo obtener nueva licencia, dentro del municipio de Garai, en el plazo de diez años por ninguna de las formas establecidas en el Reglamento de la Ley de transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo.
- 2 La transmisión deberá ser autorizada por el Área correspondiente, previa petición cursada al efecto, y siempre que el adquirente cumpla los requisitos y condiciones establecidos en la presente Ordenanza y demás normativa que sea de aplicación.
- 3 Transcurrido el plazo de tres meses sin haberse notificado la resolución expresa, quien hubiere deducido solicitud de transferencia de licencia podrá entenderla desestimada por silencio administrativo, sin perjuicio de la resolución que la Administración Municipal debe dictar, en la forma prevista en el artículo 43.4. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.



4. Eskualdaketaren baimena iraungi eta inolako ondorerik gabe geratuko da, ebazpena eman denetik sei hilabeteko epea iragan ondoren.
4. La autorización de transferencia caducará y quedará sin efecto alguno, transcurrido el plazo de seis meses desde la fecha de la resolución en que se concediere.
5. Lizentziak ezingo dira eskualdatu Udala lizentzia horiek iraungitzeko edo eteteko izapideak egiten ari bada.
5. No podrán ser objeto de transmisión, las licencias cuando el Ayuntamiento esté tramitando procedimiento de extinción o suspensión temporal de las mismas.
6. Eskualdatutako lizentziako ibilgailua aurreko bera izan daiteke, lizentzia erosi duenak ibilgailu hori eskuratu baldin badu hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudian aurreikusitako eraren baten arabera, baina titular berriak beste ibilgailu bat ekar dezake ibilgailuak aldatzeko baldintzak betez gero.
6. El vehículo a que se refiere la licencia transmitida podrá ser el mismo al que anteriormente estuvieran referidas, cuando el adquirente de ésta hubiera, a su vez, adquirido la disposición sobre tal vehículo conforme a alguna de las modalidades prevista en el Reglamento de la Ley de transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo o bien ser otro distinto aportado por el nuevo titular, siempre que se cumplan los requisitos para la sustitución de vehículos.
7. Dena dela, Udalak lizentziak eskualdatzeko baimena emateko beharrezkoa izango da hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudian tipifikatutako arau-hausteren bat egin eta administrazio bideko behin betiko ebazpen bidez ezarritako diru-zehapena badu, hori ordainduta izatea, lizentzia eta baimen horiekin lotutako arau-hausteak egon diren kasuetan.
7. En todo caso, el pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa por alguna de las infracciones tipificadas de acuerdo con el Reglamento de la Ley de transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo, será requisito necesario para que el ayuntamiento autorice la transmisión de las licencias en relación con las cuales hayan cometido sus titulares dichas infracciones.
8. Ezin izango da lizentziarik eskualdatu Udalak ofizialki baldin badaki lizentzia bahituta duela organo judicialak edo administratiboak.
8. No se podrá transmitir las licencias cuando el Ayuntamiento tenga conocimiento oficial de que se ha procedido el embargo de aquéllas por el órgano judicial o administrativo.



18. artikulua. Ikusonespena.

- 1 Lizentziak ikusonestea da Udalak, aldizka eta betiere uneoro gauza daitezkeen ikuskapeneterako ahalmenaren kaltetan izan gabe, jatorrian lizentzia ematea justifikatu zuten baldintzak bere horretan mantentzen direla eta jatorrian eskatzen ez baziren ere ezinbestean bete behar diren horiek ere betetzen direla egiaztatzeko gauzatzen duen jarduera.
- 2 Lizentziak lau urtez behin ikusonetsiko dira, lizentzia Ordenantza honetako 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 3 Ikusonetsita ez badago gaikuntza-tituluak kentzea ekar dezake, Ordenantza honen 15. artikuluko 1. atalaren b) letran aurreikusitako terminoetan.
- 4 Behin betiko ebazpen bidez administrazio bidean jarritako diru-zehapenak ordaindu beharko dira ikusonespena lortzeko.

19. artikulua. Lizentzien erregistroa.

1. Udalak, dagokion arloaren bidez, emandako lizentzien erregistroa prestatuko du; bertan titularrei, lizentziari atxikitako ibilgailuei, egindako arau-hausteei, ezarritako zigorrei eta lizentziari buruzko gainerako gauzei buruzko gorabehera guztiak jazoko dira.
2. Nolanahi ere, erregistroan ondoko datu eta dokumentuak adierazi beharko dira:

Artículo 18.- El visado.

1. El visado de las licencias es la actuación por la cual el Ayuntamiento, constata de forma periódica y sin perjuicio de las facultades de inspección que se puedan realizar en cualquier momento, el mantenimiento de las condiciones que originariamente justificaron el otorgamiento de las mismas y que constituyen requisitos para su validez, y de aquellos otros que aún no siendo exigidos originariamente, resulta, asimismo, de obligado cumplimiento.
2. Los visados de las licencias se realizarán cada cuatro años, a partir de la fecha de la concesión de las mismas en los términos previstos en el artículo 9 de esta Ordenanza.
3. La falta de visado dará lugar a la revocación de los títulos habilitantes en los términos previstos en la letra b) del apartado 1 del artículo 15 de esta Ordenanza.
4. El pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa será requisito necesario para la realización del visado.

Artículo 19. Registro de Licencias.

1. El Ayuntamiento, a través del área correspondiente, llevará un Registro de Licencias concedidas, en el que se irán anotando las diferentes incidencias relativas a su titularidad, vehículos afectos a las mismas, infracciones cometidas y sanciones impuestas, así como cualquier otra relativa a la licencia.
2. En todo caso, constarán en el registro los siguientes datos y documentos:



- a) Lizentziaren titularra eta zenbakia eta, hala badagokio, gidaria, helbidea, NANaren fotokopia eta telefono zenbakia.
 - b) Lizentziari atxikitako ibilgailua, matrikula, marka eta zirkulazioko baimenaren fotokopia.
3. Erregistroko datuak publikoak izango dira, baina partikularrek datu horiek nahi izanez gero, bidezko interesa dutela egiaztatu beharko dute, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua xedatutakoaren arabera. Bertako datuen tratamendua eta lagapena egiteko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.
 4. Koordinazio-helburuetarako, erregistro horietan jasotako informazio guztia Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Sailaren mende egongo den base nagusira igorriko da.
- a) Titular, y número de la licencia y, en su caso, conductor, domicilio, fotocopia del D.N.I. y número de teléfono.
 - b) Vehículo adscrito a la licencia, matrícula, marca y fotocopia del permiso de circulación.
3. El conocimiento de los datos que figuren en el Registro será público, si bien para la consulta de los mismos por los particulares podrá exigirse la acreditación de un interés legítimo en dicho conocimiento de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. El tratamiento y cesión de los datos contenidos en el mismo se realizará ajustándose a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal
 4. A efectos de coordinación, toda la información recogida en dichos registros se remitirá a una base central que dependerá del Departamento de Transportes y Obras Públicas de Gobierno Vasco.



III. KAPITULUA IBILGAILUA

CAPÍTULO III DEL VEHÍCULO

20. artikulua. Ibilgailua atxikitzea.

Taxiaren lizentziak ibilgailu jakin bat izan behar du atxikita; bai jabetzaz, bai errentamendu finantzario edo ohiko erregimenean.

21. artikulua. Ibilgailuen egoera eta antzinasuna.

1. Zerbitzu publiko egokia emateko, Ordenantza honek aipatzen dituen ibilgailuak, kontserbazio, segurtasun, funtzionamendu eta garbitasunaren aldetik, egoera onean egon beharko dira, barrualdetik zein kanpoaldetik.
2. Lizentziari ezin izango zaio atxiki lehenengo matrikulaziotik bi urtetik gorako antzinasuna duen ibilgailurik, matrikulazioa egin den herrialdea edozein izanda ere.

22. artikulua.- Ibilgailua bera edo ibilgailuaren ezaugarriak aldatzea.

1. Lizentziaren titularrak berorri atxikitako ibilgailua ordeztu dezake.

Aldatuz gero, aldatu den ibilgailuak 2 urte baino gutxiago izan beharko ditu lehenbiziko aldiz matrikulatu zenetik, matrikulatu zen herrialdea kontuan izan gabe.

Artículo 20.- Adscripción de un vehículo.

La licencia de taxi deberá tener adscrito un determinado vehículo; bien, en propiedad; bien, en régimen de leasing o renting.

Artículo 21. Estado y antigüedad de los vehículos.

1. Para la prestación de un correcto servicio público, los vehículos a que se refiere esta Ordenanza deberán estar en buen estado de conservación, seguridad, funcionamiento y limpieza, tanto exterior como interior.
2. No se podrá adscribir a la licencia ningún vehículo cuya antigüedad exceda de dos años, desde su primera matriculación, cualquiera que sea el país en que ésta se hubiere producido.

Artículo 22.- Sustitución del Vehículo o Modificaciones en las características del mismo.

1. El titular de la licencia podrá sustituir el vehículo adscrito a ésta.

La antigüedad del vehículo sustituto debe ser inferior a 2 años desde la primera matriculación, cualquiera que sea el país en que ésta se haya producido.



2. Horretarako, interesdunak, idatziz, nahitaezko udal baimena eskatuko du eta berori emango da zerbitzuaren segurtasun eta zainketarako baldintza teknikoak egokiak diren, hala nola zerbitzua emateko behar den dokumentazioa zuzena den egiaztatu ondoren.
2. A tal efecto, el interesado solicitará, por escrito, la perceptiva autorización municipal, que se concederá, una vez comprobada la idoneidad de las condiciones técnicas de seguridad y conservación para el servicio, así como la corrección de la documentación precisa para la prestación de éste.
3. Eskaera hori Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako prozedurazko bideetatik izapidetuko da.
3. Dicha petición se tramitará por los cauces procedimientos establecidos en el ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
4. Era berean, lizentziaren titularrak ibilgailuen ezaugarriak aldatu ahal izango ditu, betiere ezaugarri horiek baimendutako gehieneko pisuari, karga-ahalmenari, leku-kopuruari edo bestelako ezaugarriei buruzkoak direnean, eta indarrean dagoen legedira doitzen direnean nahiz hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudian aurreikusitakoa betetzen dutenean.
4. Asimismo, el titular de la licencia podrá modificar las características de los vehículos siempre que las mismas estén referidas al peso máximo autorizado, capacidad de carga, número de plazas u otras características y se ajusten a la legislación vigente y cumplan lo previsto en el Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo.
5. Ibilgailuak istripua edo matxura izanez gero, konpondu bitartean, titularrak antzeko ibilgailu batekin jarraitu ahal izango du zerbitzua ematen, hirian eta hiri artean bidaiariak turismo ibilgailuz garraiatzearen gaineko Legearen Araudian eskatutako gainerako betekizun guztiak betetzen baldin baditu.
5. En el supuesto de accidente o avería del vehículo, el titular podrá continuar prestando el servicio, durante el tiempo que dure la reparación, mediante un vehículo de similares características al accidentado o averiado y que cumpla el resto de requisitos exigidos por el Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo.



23. artikulua.- Eskualdatzea.

Taxiaren udal lizentziari atxikita dagoen ibilgailua bizirik dauden pertsonen artean eskualdatzeak berau kentzea ekarriko luke, beroni atxikitako lizentziaren titularrak, aldi berean, beste ibilgailu bat atxikitzen duenean salbu, aurretik Administrazioak aztertu eta baimendu ondoren.

24. artikulua. Zirkulatzeko gaikuntza.

Ibilgailuek , honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Zirkulatzeko matrikulatuta eta gaituta egotea.
- b) Legez dagokien ibilgailuen azkeneko azterketa teknikoa indarrean izatea.

25. artikulua.- Leku kopurua.

Ibilgailuek gehienez ere bost leku izango dituzte oro har, gidariarena barne, eta hori agertu beharko da nola zirkulatzeko baimenean hala azterketa teknikoaren txartelean. Dena dela, behar bezala justifikatutako kasuetan 9 leku ere izan daitezke Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak baimena emanaz gero. Ibilgailuei buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute eta ezingo du horien homologazioan eraginik izan, eta zerbitzua eskaintzeko baldintzak jarri ahal izango dira baimen horretan.

Artículo 23.- Transmisión.

La transmisión “inter vivos” del vehículo adscrito a la licencia municipal de taxi dará lugar a su revocación, salvo que, simultáneamente, el titular de la licencia adscriba a ésta un nuevo vehículo, previamente revisado y autorizado por la Administración.

Artículo 24.- Habilitación para circular.

Los vehículos de turismo habrán de cumplir, los siguientes requisitos:

- a) Estar matriculados y habilitados para circular.
- b) Hallarse vigente la última inspección técnica periódica que legalmente les corresponda.

Artículo 25.- Número de Plazas.

Los vehículos de turismo deberán tener con carácter general una capacidad máxima de cinco plazas, incluida la del conductor, debiendo figurar esta capacidad tanto en el permiso de circulación como en la tarjeta de inspección técnica. No obstante, en casos suficientemente justificados, esta capacidad podrá ampliarse hasta 9 plazas, mediante autorización de este Ayuntamiento y de la Diputación Foral de Bizkaia, siempre que se ajuste a lo dispuesto en la normativa vigentes sobre vehículos y no afecte a la homologación del mismo, pudiendo establecerse en dicha autorización las condiciones de prestación del servicio.



26. artikulua.- Ibilgailuen ezaugarri fisikoak.

Ordenantza honetan araututako jardueretarako egokia den taldean sailkatuta egon beharko du ibilgailuak azterketa teknikoaren txartelean eta Ibilgailuen Araudi Nagusian aurreikusitako ibilgailuen berezko ezaugarriez gain, honako ezaugarriak izan beharko dituzte:

- a) Ibilgailuaren barruko eta eserlekuen gutxieneko neurriak eta ezaugarriak zerbitzu mota honetan erabiltzaileari eskaini beharreko segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko behar direnak izango dira. Nolanahi ere, gutxienez 4 ate izango dituzte eta maleta-lekuak 330 litroko edukiera izango du.
- b) Gehienez bost leku izango dituzte, gidariarena barne. Salbuespen moduan, ibilgailuak leku gutxiago edo gehiago (gehienez bederatzire leku) edukitzea baimendu ahal izango da, egin behar duen zerbitzuaren izaera eta gorabeheren arabera eta, batez ere, mugikortasun urriko pertsonen erabilerraztasuna kontuan hartuz.
- c) Aurreko eta atzeko kristalak eta leihatilak gardenak eta zatiezinak izango dira, eta berenberegiz debekatuko da horiek guztiz edo zati batean estaltzea.
- d) Ibilgailuen tapizatua egoera onean egon behar da, barrualdeari garbitasun gutxi eta txarto zainduta dagoen itxura ematen duten narriadura, adabaki edo bestelako hondamenik gabe. Aldi berean, saiatuko da hura kolore berekoa izatea, bere kalitatea eta marrazkiak desegokiak izatea galaraziz.

Artículo 26.- Características físicas de los vehículos.

Los vehículos deberán estar clasificados en su correspondiente tarjeta de inspección técnica en el grupo adecuado para la prestación de las actividades reguladas en la presente Ordenanza y presentar en todo caso, además de las características propias de los vehículos previstas en el Reglamento General de Vehículos, las siguientes características:

- a) Las dimensiones mínimas y las características del interior del vehículo y de los asientos serán las precisas para proporcionar al usuario la seguridad y comodidad propias de este tipo de servicio. En todo caso deberán contar con un mínimo de 4 puertas y una capacidad mínima de maletero de 330 litros.
- b) Tendrán una capacidad máxima de cinco plazas, incluida la del conductor. Excepcionalmente, podrá autorizarse que el vehículo tenga una capacidad inferior o superior (hasta nueve plazas) a ésta, atendiendo a la naturaleza y circunstancias del servicio a realizar y, fundamentalmente a la accesibilidad para personas de movilidad reducida.
- c) Los cristales de las lunetas delantera y posterior y las ventanillas serán transparentes e inastillables, prohibiéndose expresamente su ocultamiento total o parcial.
- d) El tapizado de los vehículos se encontrará en buen estado, sin deterioros, parches u otros desperfectos que impriman al interior el aspecto de poca limpieza y mala conservación, y se procurará que aquél sea del mismo color, no permitiéndose los que, por su calidad y dibujo, resulten inadecuados.



- e) Zorua babes daiteke gomazko estalkiekin edo erraz garbitzeko moduko beste materialen batekin, ondo erantsita eta apurtu gabe badaude.
 - f) Debeakututa dago alfonbrak eta lanpasak erabiltzea.
 - g) Zuriz pintatuta egon behar dira.
 - h) Lizentziaren zenbakia modulu adierazlearen alboetan egon behar da, ibilgailuaren atzealdeko kapotaren ezkerrean eta ateetako alboko zerrenden azpialdean, zortzi zentimetroko altuera eta proportziorako zabalerako kolore beltzeko zifrak erabiliz.
 - i) Egunez zein gauez, taxia okupatu gabe badago, argi berdea piztuta adieraziko da.
 - j) Era berean, barruko argia duen aparatu adierazle bat ere izango dute ezarrita, karrozeriaren sabaiaren aurrealdean kokatuta. Aparatu adierazle horren argi laburrak pizterakoan aktibatuko da.
- e) El piso podrá protegerse con cubiertas de goma u otro material fácilmente lavable, bien adosadas y sin roturas.
 - f) Queda prohibido el uso de alfombras y felpudos.
 - g) Irán pintados de blanco.
 - h) El número de licencia irá en los laterales del módulo indicador, en la parte izquierda del capó trasero del vehículo y en la parte inferior de las bandas laterales de las puertas, empleando, para ello, cifras de color negro, de 8 centímetros de altura y anchura proporcionada.
 - i) Durante el día y la noche, la situación de desocupado se indicará mediante el encendido de la luz verde.
 - j) Llevarán instalado, también, un aparato indicador provisto de iluminación interna, situado en la parte delantera del techo de la carrocería, que deberá entrar en servicio al activarse la luz de cruce.

27. artikulua. Legezko eta arauzko baldintzak.

Taxi zerbitzuari atxikitako automobilerik Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legean, bere Araudian, Ibilgailuen Araudi Nagusia eta gainontzeko zirkulazioko araudian dauden eskakizunak bete behar dituzte, haizetako-garbigailua, atzerako ispilua, kanpoko argiak, eta hala nola eska litezkeen edozein gauzatan, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.

Artículo 27. Requisitos legales y reglamentarios.

Los vehículos automóviles adscritos al servicio de autotaxi deberán cumplir las exigencias contenidas en la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, su Reglamento, el Reglamento General de Vehículos y demás normativa circulatoria, en extremos tales como aparatos limpiaparabrisas, espejo retrovisor, alumbrado exterior, así como cualesquiera otros aspectos que puedan exigirse, de acuerdo con la normativa vigente en cada momento.



28. artikulua.- Ibilgailuen bestelako ezaugarriak.

"Zerbitzu Publikoa" adierazgarriak, "Libre" dagoela adierazten duenaren argiak eta taximetroko argiak Ibilgailuen Araudi Nagusiko XI. Eranskinean aipatzen diren ezaugarriak beteko dituzte.

29. artikulua.- Ibilgailuen bereizgarriak.

1. Erraz ikusteko moduan adierazi beharko da, ibilgailuaren moduluan, zein lizentzia-zenbakiri dagoen atxikita.
2. "Zerbitzu publikoa", matrikula eta antzekoen plaka bereizgarriei dagokienez, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legean, Ibilgailuen Araudian eta ezarri beharreko gainerako araudian xedatutakoa bete behar da.

30. artikulua.- Modulu.

1. Automobilaren lizentziaren titularrak, lizentziak xedetzat duen ibilgailuan tarifak adierazten dituen modulu adierazlea ezarri beharko du.
2. Modulu adierazlea ibilgailuaren sabaiko aurrealdean jarriko da eta horren zeregina kanpoan ibilgailuko taximetroa zein tarifatan dagoen eta, dagokionean, libre dagoela adieraztea izango da.

Artículo 28.- Otras características de los vehículos.

El distintivo de "Servicio Público", el Alumbrado indicador de "Libre", así como el Alumbrado de Taxímetro reunirán las características que se contienen en el Anexo XI del Reglamento General de Vehículos.

Artículo 29.- Distintivos de los vehículos.

1. Se hará constar de manera visible, en el módulo del vehículo, el número de licencia a que se encuentra afecto.
2. En lo relativo a las placas indicadoras del "servicio público", matrícula, etc., se estará a lo dispuesto en la ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en el Reglamento de Vehículos y demás normativa de pertinente aplicación.

Artículo 30.- Módulo.

1. El titular de la licencia de vehículos de turismo, deberá instalar en el vehículo al que se refiere la licencia un módulo indicador que permita la visualización de las tarifas.
2. El módulo indicador, que deberá situarse en la parte delantera del techo del vehículo, estará destinado a indicar en el exterior del vehículo la tarifa en que está seleccionado el taxímetro así como, en su caso la situación de libre:



3. Honako baldintzak bete beharko ditu moduluak:
- Lizentziaren zenbakia eramango du.
 - Garaiko Udalaren izena eramango du.
 - "Libre" dagoela adierazteko, moduluko argi berdea piztuko da.
 - Libre ez baldin badago, moduluak aplikatzen ari den tarifa bakarrik adieraziko du.
 - "Taxi" hitza izango du.
 - Fabrikatzailearen marka eta homologazioko ikurrak eramango ditu, edo, dagokionean, erabiltzeko baimenarenak.
 - Ezingo du beste ezer eraman.
3. El módulo cumplirá los siguientes requisitos:
- Deberá llevar inscrito el número de licencia.
 - Deberá llevar inscrito el nombre del Ayuntamiento de Garai.
 - La posición de "libre" se indicará mediante una luz verde ubicada en el módulo.
 - En la posición de ocupado, el módulo indicará únicamente la tarifa que resulte de aplicación.
 - Contendrá la palabra "Taxi".
 - Contendrá la marca del fabricante y los signos de homologación o, en su caso, de la autorización de uso.
 - No podrá contener otras inscripciones.

31. artikulua. Taximetroa.

- Era berean, taxi-zerbitzuko ibilgailuek taximetroa eduki beharko dute. Berori behar bezala ikuskaturik eta prezintaturik egon behar da, ibilgailu barruko aurreko aldean, bidaiariak prezioa erraz irakurtzeko moduan.
- Taximetroak argia izan beharko du zerbitzua ematen den bitartean, iluntzetik goizaldera arte.

32. artikulua. Funtzionamendua.

Taximetroa ibilgailua abian jartzen denean hasiko da funtzionatzen.

Artículo 31. El taxímetro.

- Asimismo, los vehículos autotaxi deberán ir provistos de un aparato taxímetro, debidamente inspeccionado y precintado, situado en la parte delantera del interior del vehículo, de forma que resulte visible para el viajero la lectura del precio.
- El aparato taxímetro deberá estar iluminado durante la prestación del servicio, desde el anochecer hasta el amanecer.

Artículo 32. Funcionamiento.

El aparato taxímetro entrará en funcionamiento al ponerse en marcha el vehículo.



Zerbitzua eman bitartean istripu, matxura edo erabiltzaileari egotz ezin dizkiogun bestelakoren bat gertatuz gero, taximetroak zerbitzua amaitzerakoan zehazten duen prezioari geldirik egondako denbora osoa kenduko zaio.

Si durante la prestación del servicio hubiere ocurrido algún accidente, avería u otras incidencias no imputables al usuario, se descontará del precio que marque el taxímetro al finalizar el servicio la suma correspondiente al tiempo en que hubiere estado suspendida la prestación de aquél.

33. artikulua. Taximetroaren ohiko ikuskapena.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak edo beste Erakunde batzuek egin ditzaketen azterketa edo berrikuspena pasa beharko dute taximetro guztiek.

Artículo 33. Inspección ordinaria del taxímetro.

Todos los aparatos taxímetros, serán sometidos al examen o reconocimiento a que puedan quedar sometidos por parte del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco u otros Organismos.

34. artikulua. Taximetroaren aparteko ikuskapena.

Udalak edozein momentutan agindu eta berrazter **ditzake** taximetroak, batez ere ondoko gorabeherak egiaztatzeko helburuarekin:

- a) Aparailuak ikusteko moduan adieraztea, kanpoaldetik eta urrutitik, ibilgailua libre edo okupaturik dagoen.
- b) Argi eta zehatz markatzea bidaiaren kostu gisa ateratzen diren kopuruak, indarrean dauden tarifa ofizialen arabera, bai egindako ibilbideengatik bai geldi edo itxaroten egondako denboragatik bai, bereizita, emandako zerbitzu osagarriengatik, baimenduak izan balira.
- c) Prezintu ofizialen egoera egokia.
- d) Aparailuak zulorik, mailaturik edo kaxa jota, indartuta edo manipulatuta izan den seinalerik ez izatea.

Artículo 34. Inspección extraordinaria del taxímetro.

El Ayuntamiento **podrá**, en cualquier momento, ordenar y proceder a la revisión de los taxímetros, a fin de comprobar, principalmente, los extremos siguientes:

- a) Que el aparato indique de forma visible, desde el exterior y a distancia, si el vehículo se encuentra libre u ocupado.
- b) Que marca, clara y exactamente, las cantidades devengadas como importe del viaje, con arreglo a las tarifas oficiales en vigor, tanto por los recorridos efectuados, tiempo de parada o espera, como, separadamente, por los servicios suplementarios prestados, caso de que hayan sido autorizados.
- c) El buen estado de los precintos oficiales.
- d) Que el aparato no presente orificios, abolladuras o señales de haber sido golpeado, forzado o manipulado en su caja.



35. artikulua. Akatsak.

Taximetroen urteko azterketak edo apartekoak egin ondoren, kokalekuan, funtzionamenduan edo taximetroak bete behar dituen bestelako baldintzetan akatsik antzemango balitz, ibilgailua berehala kenduko da zerbitzutik. Alde horretatik, ibilgailua ezin izango da bueltatu, akatsa antzeman zuten agintariek edo udal zerbitzuek egin beharreko konponketari euren oniritzia ematen ez dioten bitartean.

36. artikulua. Irregularitasunak salatzea.

1. Egiaztapen ofizialak egiteko kalterik gabe, taxia darabilen edozein pertsonak sala dezake Udalaren aurrean, edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeen aurrean, taximetroaren egoera edo funtzionamenduan legokeen edozein irregularitasun, baita zerbitzuak lituzkeen beste edozein akats ere.
2. Salaketa egiaztatuko ez balitz, salatzaileak zerbitzuaren kostua ordainduko du. Era berean, arrazoi horregatik, egindako egiaztapen ofizialaren ondorioz sortutako gastuak ere ordainduko ditu salatzaileak.
3. Egiaztapena egitean, akats-tarte txikia baimenduko da aparailuaren funtzionamenduan, baina hori inola ere ez da % 3 baino gehiagokoa izango.

Artículo 35. Deficiencias.

